

# BESTELAKO XEDAPENAK

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### 4789

*EBAZPENA, 2012ko irailaren 25ekoa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, zeinen bidez argitaratzen baita Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordearen Akordioa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legeari buruzkoa.*

Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan aurreikusten den erabakia hartu ondoren, eta artikuluko horren c) idatzi-zatian ezarritakoarekin bat, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordearen Akordioa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legeari buruzkoa. Ebazpen honen eranskinean jaso da, hain zuzen ere, akordioa.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 25a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,  
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJOO.

2012ko urriaren 30a, asteartea

## ERANSKINA

ESTATUKO ADMINISTRAZIOAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
ADMINISTRAZIOAREN ARTEKO ALDEBIKO LANKIDETZA BATZORDEAAKORDIOA, ESTATUKO ADMINISTRAZIOAK ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
ADMINISTRAZIOAK OSATUTAKO ALDEBIKO LANKIDETZA BATZORDEARENA, EUSKADIKO  
SEGURTASUN PUBLIKOAREN SISTEMA ANTOLATZEKO EKAINAREN 28KO 15/2012  
LEGEARI BURUZKOA

Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzak Batzordeak, 2012ko irailaren 24an egindako bilkuran, akordio hau hartu zuen:

1.– Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeke ekainaren 28ko 15/2012 Legearen zenbait artikulua direla-eta sortutako desadostasunak ebazteko negoziazioei ekitea; hona hemen artikuluko: 8.3, 49, 50 eta 55.

2.– Lantalde bat izendatzea, Aldebiko Lankidetzak Batzordeari konponbide bat proposatzeko.

3.– Urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, jakinaraztea akordio hau Konstituzio Auzitegiari, 2012ko urriaren 6a baino lehen; eta horretaz gain, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Madril, 2012ko irailaren 24a.

Ogasun eta Herri Administrazioetako ministroa,  
CRISTÓBAL MONTORO ROMERO.

Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,  
IDOIA MENDIA CUEVA.